

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Rat-Zinger.
Rat-Zinger.
Maukamusik.
Iraupena: 39'39".
10 euro.

Estoldetako amorrua gurpil gainean

EKINTZA-GUNEA Bilbon duen talde oldarkor hau musikagintzan gaizkile gisa luzaroan ibilitako kideek osatzen dute. Motörhead-en traza handia duen motozerrako punk-rocka egiten dute, Eskandinaviako kutsuko gitarra bizi-biziek, baina badira eskola zaharreko hardcore eta metalaren oinarri handiak dituzten piezak ere, iraganeko taldeetan sonoritate horiek ere landu izan dituztelako. Hitzei dagokienez, izugarri oldarkorrak dira, amorru ikaragarria dute,

guztiari eta guztiei eraso egiten diete inongo gupidarik gabe. Gainera, Podriren ahotsak irmotasun handia dauka eta amorru horri batu behar zaio umore beltz puntu nabarmena. Bestalde, gaztelaniaz idazten badute ere, euskarazko pieza bat grabatu dute Fermin Muguruzarekin; eta Komako Brigiren kolaborazioarekin, Quemando Ruedas-en *Mi navaja*.

www.myspace.com/ratzingerbilbao

Rat-Zinger

«Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna»

Anarko, Sucio Sistema, Pilt, Zer Bizio! eta beste talde asko daude zuen curriculumetan. Zerk batu zintuzten proiektu honetan?

Pinkyk eta Podrik Anarkon bat egin zuten eta berau desagertu zenean, aspaldi idatzita zeuzkaten kankak jotzeko proiektu bat sortzea erabaki zuten. Berehala Javi batu zen eta martxan jarri zen gutzia.

“Rat-Zinger hil nahi dut gurutzadetakoko sarraskiengatik, kanpaikaden hotsagatik”. Hitzek amorru handia dute, baina baita umore beltza ere...

Maitasun kanta gehiegi dago. Guztiok bat egin genuen zerbait zuzena egiteko asmoan, eta biolentzia mental eta umore beltz handia dugu. Gauzak esateko oso modu aproposa da; eta era naturalean irteten zaigu.

Gaur egungo talde gutxiak erakusten dute halako kale-

ko izaera... Horren adibide da, besteak beste, Quemando Ruedas bertsioneatzea.

Dagoeneko ez gara gaztetxoak eta kalean hazitakoak gara; hitzetan antzematen da hori. Quemando Ruedas taldeari dagokionez, guretzat Euskal Herrian izan den talde onenetarikoa da eta ez da inoiz nahikoa errebindikatu.

Punk-rock gitarreroa eta Motörhead ildoak oso presente daude zuen musi-

kan. Ez duzue saihesterik hartu nahi, bide zuzena baizik?

Saihestezina da musika eraginak izatea, baina gustatzen zaiguna egiten dugu, besterik barik. Hala ere, rock-and-roll makarraz hitz egiten badugu, Motör aipatu beharra dago.

Ez duzue jainkoan sinisten, ez duzue idolorik rockean eta ez zarete giza-kiaz fio. Zertan sinisten duzue?

Norbera nor den jakin eta onartzean bakarrik sinisten dugu.

AITORTXU



Ez da ohikoa Fermin Muguruzak gaur egun Euskal Herriko taldeekin kolaboratzea. Zergatik aukeratu zenuten bera?

Fermin batez ere lagun handia da. Anarkok The Clashen omenezko kanta egiterakoan ere bere laguntza izan genuen. Fermin makina bat da eta oso pozik gaude laguntzeko denbora tartea hartu ahal izan duelako. ■